

Exoeskeletoa pertsona batek daraman gailu eramangarria da, eta laguntza gehigarria ematen du lan fisikoak egiteko.

► PROBATU NAHI DUZU? ◀

Jarri harremanetan Mutualiaren PREBENTZIO AHOLKULARITZArekin, hemen:

prebentzioa@mutualia.eus

944 042 105

943 426 500

945 009 077



ESKURAKO EXOESKELETO MEKANIKOA

Erabiltzailearen eskuaren esfortzu muskularra murrizten du, heldulekuari indar eta erresistentzia gehigarria emanez, lesio arriskua murriztuz.

Exoeskeleto aktiboak, bizkarrean edo aldakan eraman daitekeen motor bat eta bateria bat ditu.



Zertan oinarritzen da?

Tendoi artifizialen bidez hatz-puntetan dauden sentsoreak motor batekin konektatuz, helduleku-indarra gehigarria emanez eta helduleku iraunkorretan edo errepikakorretan erresistentzia areagotuz.

Abantailak

- ▶ Erabiltzeak helduleku-indar txikiagoa eskatzen du.
- ▶ Nekea murrizten du eta heldulekuak eragindako lesioak saihesten ditu.
- ▶ Sistema konfiguratzeko eta indarra eta sentsibilitatea doitzeko aukera ematen du.
- ▶ Lesio arriskua ebaluatzen laguntzen duten datu ergonomikoak eskaintzen ditu.
- ▶ Jarri eta kentzeko erraza.

Norentzat da?

- ▶ Denbora luzez estatiko mantendu behar diren eskuzko erremintekin eta erreminta elektrikoekin egindako lanei.
- ▶ Kargak eskuz maneiatzeko, zamak altxatzeko, eusteko eta eramatea bezalako ekintzei.

